

42500 pertsona bildu ditu Bilbo Zientzia Plazaren programazioak

Hiru egunez luzatu den Naukas Bilbao eta Naukas PRO ikustera 4400 pertsona hurbildu dira Euskalduna Bilbaora.

BZPren ekimenek jarraipen zabala izan dute streamingez, 36000 ikusle baino gehiagorekin.

Bilbo, 2024ko urriak 2. Irailaren 10ean hasi eta 30ean bukatu den [Bilbo Zientzia Plaza \(BZP\)](#) ekimenak **42500 pertsona bildu ditu** egun horietan zehar egindako jarduera ezberdinetan.

[Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedrak](#) antolatutako ekimenak ia 70 hitzaldi zientifiko, bi ikuskizun, antzezlan bat eta erakusketa bat barne hartu ditu bere programazioan.

Izan ere, BZPren **helburua zientzia-dibulgazioa paisaia kulturean errotzea** eta ezagutza zientifikoa publiko anitzaren esku jartzea izan da. **Iker Badiola Etxaburu UPV/EHUko Kultura Zientifikoko Katedrako zuzendariaren ustez helburua lortu da.**

“Gure helburu nagusia zientzia-dibulgazioa paisaia kulturean errotzen jarraitzea izan da eta hori lortu dugu. Emaitzek agerian uzten dute zientziak interesa sortzen duela. Katedratik ezagutza zientifikoa eskaintzen dugu eta jendeak egin dugun proposamenari gogoz heldu dio. Beraz, helburua bete dugu”, adierazi du Badiolak.

Ikusle kopuruak gora egin du NAUKAS Bilbaon

Azken asteetan antolatutako jardueretara ia 6000 pertsona hurbildu dira. Horietatik gehienak Euskalduna Bilbaon hiru egunez, irailaren 19tik 21era, luzatu den Naukas Bilbaora gerturatu dira. Ostegunean itsasoko kutsadura eta energia berriztagarriak hizpide izan zituen **NAUKAS PROk 400 pertsona baino gehiago bildu ditu**; ostiralean

eta larunbatean egindako **NAUKAS Bilbaok, berriz, 4000 pertsona batu ditu**, aurreko urteko kopurua hobetuz.

Horretaz gain, igande horretan egindako **NAUKAS Kidsen azkeneko ediziora 660 haur eta gazte hurbildu** ziren Bizkaia Aretoa-UPV/EHUr zientzia hizpide izan zituzten ikuskizun biak ikustera.

Azkenik, Bidebarrieta Zientifikoa hitzaldien zikloari hasiera eman dion **Soy Jon y estoy muerto antzezlana ikustera 125 pertsona** hurbildu ziren eta irailean zehar Bizkaia Aretoa-UPV/EHUn egon den **GEAS: Lurra aztertzen duten emakumeak erakusketara 755 pertsona hurbildu dira**.

36000 ikusle baino gehiago streamingez

Aurten ere BZPren hainbat ekimen streamingez jarraitzeko aukera egon da eta 36000 pertsona baino gehiagok aukera hori egin dute hitzaldi ezberdinak zuzenean ikusteko. Horretaz gain, gerora plataforma ezberdinetan jarri diren BZPren bideoek 71.000 ikustaldi baino gehiago izan dituzte orain arte, aurreko urteko zifrak hobetuz.

BZP [Bilboko Udalaren](#) eta [Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren](#) babesarekin eta [DIPC](#), [Euskampus Fundazioa](#), [Metro Bilbao](#) eta [EITB](#)ren laguntzarekin antolatutako ekimena da.

La programación de Bilbao Zientzia Plaza reúne a 42500 personas

Un total de 4400 personas se han acercado al Euskalduna de Bilbao para ver Naukas Bilbao y Naukas PRO, que se ha prolongado durante tres días.

Las iniciativas de BZP han tenido un amplio seguimiento en streaming, con más de 36000 espectadores.

Bilbao, a 2 de octubre de 2024. La iniciativa [Bilbao Zientzia Plaza \(BZP\)](#), que ha comenzado el 10 de septiembre y ha finalizado el 30 de septiembre, ha reunido a **42500 personas en las actividades realizadas a lo largo de esos días.**

La iniciativa organizada por la [Cátedra de Cultura Científica de la Universidad del País Vasco](#) ha desarrollado en estas fechas un programa compuesto por casi 70 conferencias científicas, dos espectáculos, una obra de teatro y una exposición.

El objetivo del BZP ha sido afianzar la divulgación científica en el paisaje cultural y poner el conocimiento científico en manos de un público plural. Un propósito que, en palabras del director de la Cátedra de Cultura Científica de la UPV/EHU Iker Badiola Etxaburu, se ha cumplido.

"Nuestro objetivo principal ha sido seguir arraigando la divulgación científica en el paisaje cultural y eso es lo que hemos conseguido. Los resultados evidencian el interés que suscita la ciencia. Desde la Cátedra ofrecemos conocimiento científico y la gente ha acogido con interés la propuesta que hemos hecho. Por lo tanto, hemos cumplido el objetivo ", ha subrayado Badiola.

Aumenta el número de espectadores en NAUKAS Bilbao

Casi 6000 personas se han acercado de manera presencial a las actividades organizadas en las últimas semanas dentro del programa BZP. La mayoría de ellos han acudido a Naukas

Bilbao, que se ha prolongado durante tres días, del 19 al 21 de septiembre, en el Euskalduna Bilbao. **NAUKAS PRO**, celebrado el jueves y que ha tratado sobre la contaminación marina y las energías renovables, **ha reunido a más de 400 personas**, mientras que **NAUKAS Bilbao**, celebrado el viernes y el sábado, **ha reunido a 4000 personas, mejorando la cifra del año anterior**.

Además, en la última edición de **NAUKAS Kids**, dirigido al público infantil y realizado el domingo, **660 personas se acercaron al Bizkaia Aretoa-UPV/EHU** para ver los dos espectáculos programados.

Por último, **125 personas se acercaron a ver la obra de teatro Soy Jon y estoy muerto** que ha abierto el ciclo de conferencias Bidebarrieta Científica y **casi 755 personas se han acercado a la exposición GEAS: Mujeres que estudian la tierra** instalada en el Bizkaia Aretoa-UPV/EHU a lo largo del mes de septiembre.

Más de 36000 espectadores por streaming

Un año más ha habido ocasión de seguir en streaming varias iniciativas del BZP y más de 36000 personas han hecho esta opción para ver en directo las diferentes conferencias. Además, los vídeos de BZP que posteriormente se han instalado en diferentes plataformas han superado las 71.000 visitas hasta la fecha, mejorando las cifras del año anterior.

BZP es una iniciativa que ha contado con el patrocinio del [Ayuntamiento de Bilbao](#) y el [Departamento de Educación del Gobierno Vasco](#) y la colaboración de [DIPC](#), [Euskampus Fundazioa](#), [Metro Bilbao](#) y [EITB](#).